

Expediente 2026/276: Jaiotze tasa sustatzeko dirulaguntzak 2026 / Subvenciones para el fomento de la natalidad 2026

JAIOTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Primero. Onuradunak

Ordenantza honetan araututako laguntzak jaso ahal izango dituzte bizilekua eta benetako bizilekua Udal honetan duten gurasoek, gutxienez bi urte lehenago erditu aurretik.

Jaiotza bakoitzagatik dirulaguntza bakarra jaso ahalko da.

Bigarrena. Helburua

Ordenantza honen xedea da Kanpezuko Udalak jaiotza-tasa sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2026ko martxoaren 16ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu ziren jaiotza-tasa eta erroldatzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, eta 2026ko ekainaren 3ko ALHAOn argitaratu ziren (63. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoak honako hauek izango dira:

1.- Laguntza ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa izango da, eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak betez emango da.

2.- Laguntzaren zenbatekoa familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren errenta-mailaren araberakoa izango da: bostehun (500,00) eta mila (1.000,00) euro artekoa.

Horretarako, aurreko ekitaldian deklaraturako familia-unitatearen diru-sarrerak alderatuz, honako bi diru-sarreraren tarte hauek eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa ezartzen dira:



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

a) 35.000,00 eurotik beherako errenten kasuan, zenbatekoa mila (1.000,00) eurokoa izango da.

b) 35.000,00 euro edo gehiagoko errentetarako, zenbatekoa bostehun (500,00) eurokoa izango da.

Nolanahi ere, eskabide kopuruaren arabera, jaso beharreko zenbatekoak murriztu behar badira aurrekontu-partidara egokitzeko, modu proportzionalean egingo da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

ALHAOn oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte.